


→ BURUA LAUTZEA PREBENITZEA (PLAGIOZEFALIA EDO BRAKIZEFALIA)




ZER DA?

Haurtxoari buruaren atzealdea lautzen zaionean gertatzen da, nagusiki umeak burua bermatzeko erabiltzen duen aldea. Batez ere bizitzako lehen hiru hilabeteetan ager dakioke, eta gorputz-jarrerarekin du zerikusia (adibidez, beti alde berera begira lo egiten badu).

Izen bat edo beste hartzen du, eragindako eremuaren arabera: atzealdeko albo batean agertzen bada, **plagiozefalia** deritzo; atzealde osoari eragiten badio, aldiz, **brakizefalia**.

Batzuetan, burua lautzeaz gain, baliteke aurpegiaren alde berean asimetria gertatzea (puztea edo protrusioa), baita belarria aurreratzea ere.




NOLA PREBENI DAITEKE?

Lautzea prebenitu edo zuzentzeko, jarraitu gomendio erraz hauei:



Umetxoaren buruaren posizioa alde batetik bestera aldatu, ahoz gora lo egiten duen bitartean (posizio hau gomendatzen da bat-bateko heriotza prebenitzeko).



Sehaskan dagoenean, buruaren kokapena alda iezaiozu, koltxoiairen gainean jarrita duen eremua aldatzeko. Burua sehaskaren mutur batera begira jar iezaiozu, eta hurrengo egunean bestera. Hau da, posizioa txandakatu, estimuluak hainbat puntutatik jaso ditzan.



Besotan hartzen duzunean, txandakatu euskarri gisa erabiltzen duzun besoa, baita bularra ematen diozunean ere, burua biratu dezan esnea bilatzeko, edo bi norabideetan estimulatzeko.



Autoan, ez erabili buruko estuak, burua mugi dezan. Kuxinak erabilgarriak dira ondo diseinatuta badaude.



Harekin jolasteko aukera duzunean, umetxoa ahoz behera jarri (sabelean bermatuta jolastea edo tummy time). Posizio hori lagungarria da burua altxatzen eta lepoko, besoetako eta bizkarreko muskuluak indartzen laguntzeko; gainera, eremu berean presio jarraitua saihestuko duzu.


PLAGIOZEFALIA | BRAKIZEFALIA

FORMA EGOKIA MANTENTZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK

AHOZ
GORA
LO EGITEA



AHOZ
BEHERA
JOLASTEA



GARRAIOA

